



Arantza Beitia Ruiz de Mendarozqueta

Unibertsitateko Irakasle Titularra Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Arabako ataleko Ekonomia Analisiaren Oinarriak I Sailean.

UPV/EHUren Ekonomia Zientzietan lizentziaduna, Lovainako Unibertsitate Katolikoaren Ekonomia Masterra eta Ekonomian doktorea Lovainako Unibertsitate Katolikoan eta Lovainako Unibertsitate Katolikoko, Parisko E.H.E.S.S.-ko, Bonngo Unibertsitateko eta London School of Economicseko “European Doctoral **Program in Quantitative Economics**” programan.

Egun, EAZ Graduko irakaslea da (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, Arabako Atala). Ekonomia: Ekonomia Analisirako Tresnak masterreko eta Ekonomia Graduko irakasle izan da ere (Ekonomia eta Enpresa Fak., Sarrikoko Atala).

UPV/EHUko Arabako Campuseko Campus Garapeneko eta Kanpo Harremanen Zuzendaria da egun. Iraganean, Praktika eta Enpresekiko Harremanen zuzendariordea izan zen Gasteizko Enpresa Ikasketen Uen. Halaber, Ekonomia: Ekonomia Analisirako tresnak Doktorego Programaren Arduradun Akademikoa eta Koordinatzailea izan da (Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Bikaintasuneranzko Aipamena jaso duen Unibertsitatearteko Doktorego Programa).

Nazioarteko, nazio mailako eta EAEko Ikerketa Proiektuetan eta UPV/EHUko Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuetan parte hartu eta parte hartzen du.

Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuko Bizkaiko campuseko aholkularia izan da titulazio berriak egiaztatzeko eta Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Espaziora egokitzeko fasean.

Ekonomia publikoaren, merkatuen arautzearen eta industria antolakuntzaren inguruko ikerlanak argitaratu ditu ondoko aldizkarietan: Economic Modelling, Journal of Institutional and Theoretical Economics, Journal of Public Economic Theory edo Journal of Health Economics, besteak beste.